

IRAKASLEAK. DIAGNOSTIKOA**10.8. TRESNA. IKASTEGIAREN DIAGNOSTIKOA.**

Irakurri arretaz ondorengo baieztapen guztiak, eta baloratu noraino zauden ados, 1etik (ez bazaude batere ados) 4ra (erabat ados bazaude).

4.- EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA DESAGERRARAZTEA				
19. Hezkuntza emozionala genero-ikuspegitik lantzen dut, ikasgelan (neska edo mutila izateak ez du esan nahi indartsuagoa edo sentikorragoa denik, neska edo mutila izate hutsagatik).	1	2	3	4
20. Zenbait material didaktiko erabiltzen ditut, ikasgelan, berdinen arteko harremana genero-ikuspegitik lantzeko (tratu ona: ondo tratatzea/gaizki tratatzea).	1	2	3	4
21. Norberaren zaintza lantzen dut ikasgelan, eta jokabide arriskutsuak aztertzen ditut.	1	2	3	4
22. Ikasgelan, hainbat material didaktiko erabiltzen ditut besteren gorputzaren mugak lantzeko, baita afektibitatea emateko eta jasotzeko nahiak ere... (Haur Hezkuntzatik).	1	2	3	4
23. Genero-desberdintasunak eta -diskriminazioak lantzen ditut, ikasgelan, ikusgarri egin ditzaten eta ikasleei identifika ditzaten laguntzeko, horiei buruz hausnartzeko, eta, ahal denean, baterako alternatibak bilatzeko.	1	2	3	4
24. Neska eta mutil izateko ereduak erakitzea lantzen dut, ikasgelan, genero-estereotipoen alternatiba gisa.	1	2	3	4
25. Feminitate ahaldunduak lantzen ditut neskekin.	1	2	3	4
26. Berdintasunezko maskulinitateak lantzen ditut mutilekin (berdintasunezko maskulinitateen ereduak eta adibideak).	1	2	3	4
27. Desberdintasunarekiko eta emakumeen aurkako indarkeriarekiko enpatia lantzen dut, ikasgelan (ipuinak, narrazioak, istorioak, rol-jokoak, bideoak ...).	1	2	3	4
28. Abesti sexisten, bideojokoen, publizitatearen, txisteen eta abarren letrak aztertzen ditut ikasgelan, ikasleekin batera, beste indarkeria sotilago batzuen adibide gisa.	1	2	3	4
29. Harreman afektibo-sexualetan izaten den indarkeriarekiko kritika lantzen dut ikasleekin.	1	2	3	4
30. Sare sozialen erabilera etikoari buruzko eztabaidak proposatzen ditut, ikasgelan: emakumeen aurkako ziberindarkeria.	1	2	3	4
31. Mikromatxismoak lantzen ditut ikasleekin.	1	2	3	4
32. Maitasun erromantikoaren mitoak lantzen ditut ikasleekin.	1	2	3	4
33. Hainbat egoeratan (ezkongai izatea, aisialdia ...) gertatzen den emakumeen aurkako indarkeriari buruz eztabaidatzen dut ikasleekin.	1	2	3	4
34. Lagundu egiten diet ikasleei bereizten emakumeen aurkako indarkeria dagoen, eta indarkeria mota asko dagoela ulertzen.	1	2	3	4
35. Indarkeriaren biktima diren emakumeei eta gizon erasotzaileei eta gai horren inguruan dauden mitoei buruz hausnartzen laguntzen diet ikasleei.	1	2	3	4
36. Beren burua ebaluatzen laguntzen diet ikasleei, emakumeen aurkako indarkeriaren inguruan dituzten aurretiko jarrera eta ideiei dagokienez, berdintasunezko identitatearen eraikuntzan aurrera egiteko.	1	2	3	4

Talde txikian item bakoitzari emandako erantzunak adosten saiatuko gara, eta argudiatzen eta akordioak lortzen ahaleginduko gara.

Itemetan lortutako puntuazioak aztertu, eta taula honetan sailkatu:

IKASTETXEAREN ANTOLAKUNTZA ETA KUDEAKETA		
	Zenbakiak	Zergatiak
Indarguneak, jardunbide egokiak (4 puntu lortu dituzten itemak).		
Ahuleziak edo hobetu beharreko edo egoerak (puntu 1 edo 2 lortu dituzten itemak).		

Gure ikastetxean hautemandako indarguneak eta ahuleziak ikusita, epe laburrean zer hobekuntza-elementu egin daitezkeen zehaztuko dugu. Kontuan izan behar dugu indarguneak ere hobetu daitezkeela. Horrela, hobetzeko behar horiek formulatuko ditugu, datozen ikasturteetan aurrera eraman ahal izango ditugun helburu gisa.

IKASTETXEAREN ANTOLAKUNTZA ETA KUDEAKETA	
HOBETZEKO BEHARRAK	LORTU BEHARREKO HELBURUAK